

Osabarrek osasun arloan euskaraz lan egiten lagunduko dizun tresna izan nahi du. Osasun arloko hainbat hiztegi eta itzulpen bildu ditugu itzulpen-biltegian, eta orain klik batean zure eskuan jarri nahi izan ditugu.

Zer egin daiteke Osabar tresnarekin?

- **Itzulpenak kontsultatu:** milaka itzulpen bildu ditugu Osabarren datu-basean, kontsultatu itzuli behar duzun testua.



- **Zalantzak argitu:** behar duzuna ez baduzu memorian topatzen, edo euskararekin lotutako bestelako zalantzarik izanez gero kontsultatu gure hizkuntza-zalantzen datu-basea. Euskara Zerbitzuari galderak egiteko aukera ere baduzu.

Bidali zalantza bat

Idatzi zure zalantza edo galdera eta Bidali sakatu

Harremanetarako nire posta:

Gaia:

Mezua:



BIDALI

Zer kargatu dugu itzulpen-memorian?

Hauek dira Osabar memoria oraingoz kargatu ditugun edukiak:

- Hiztegi sanitarioa
- GNS10 gaixotasunen sailkapena
- Hiztegi terminologikoak: bioetika, ginekologia, kardiologia, mendekotasuna, nefroUrologia, nutrizioa, onkologia, otorrinolaringologia, traumatologia
- Euskara Zerbitzuko itzulpen-memoria

Baina hau hasiera baino ez da. Itzulpen berriak sartu nahi ditugu tresna hobetzeko, eta memoria etengabe osatzen eta hobetzen joango gara. Horretarako zure laguntza ere behar dugu, idatzi eta bidali zure iruzkina.

 [Bidali zure iruzkina](#)


Nondik erabili daiteke?

Aurki Osabar erabiltzeko ikono hau



ikusiko duzu ondorengo aplikazioetan:

- **eOsabide, OsabideGlobal eta OsabideGlobal Primaria**



Osabar irekitzeko klik egin ikonoan

Harremanetarako: zalantzak argitzeko eta iradokizunak bidaltzeko...

Euskara Zerbitzua

osabar@osakidetza.eus - 945 00 62 26